



Arartekoaren 2013ko irailaren 25eko ebazpena, horren bidez Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzordeari Kontzejuko herritar baten sinaduraren gainean egindako azterlan grafologikoaren txostena emateko gomendatzen diona.

Aurrekariak

1. (...) auzo-elkarteak kexa bat aurkeztu zuen erakunde honen aurrean Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzordeak uko egin omen ziolako udalburu-errejidoreak hala eskatuta elkarte-buruari egindako azterlan grafologikoa emateari.

Elkarteak dioenez, txostenak hogeita hamar orri baditu ere horietako bi bakarrik eman zizkieten, Kontzejuan irakurritakoak hain zuzen, azterlan grafologikoa Administrazio Batzordeko buruak ordaindu zuen aitzakiarekin.

Elkartearen ustez Batzordearen jokabidea ezin da justifikatu azterlana Kontzejuko buruak eskatu eta berak "pribatuki" ordaindu duen aitzakiarekin.

Azkenik, azterlan grafologikoaren "enkarguak" izandako xedea eta hura egiteko unea ere salatu eta zalantzan jarri du elkarteak, izan ere, elkarte-buruak saioan bertan zegoen sinadura zalantzan jarri zenean, beraz, ez omen zegoen eragozpenik aurkeztutako errekurtsorearen egilea nor zen berresteko.

Hitz batez, gure erakundearen babesa eskatzen dute euren ustetan Administrazio Batzordeko udalburu-errejidorearen gehiegikeria den jokaera baten aurrean.

2. Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzordeak 2013ko urtarrilaren 18ko idazkiaren bidez erantzun zion igorri genion informazio-eskariari, eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoarekin harremanetan jartzeko adierazi zigun, hari emana baitzioten dokumentazio guztia.

Erakunde honek izapidetzen ari ginen kexa-espediterearen gaineko erabateko eskumena du eta ez dago Datuak Babesteko Euskal Bulegora jo beharko genukeela adierazten duen legezko xedapenik, beraz, gure erakundeak helarazitako informazio-eskabideari erantzuteko betebeharra zuela jakinarazi genion Administrazio Batzordeari. Hain zuzen, elkarte kexagileko lehendakariak Administrazio Batzordeak zeukan txosten grafologikoaren kopia osoa jasotzeko zeukan eskubideari buruzko informazioa eskatu genuen 2012ko abenduaren 28ko idazkian azaldu genuen argudiaketa juridikoari jarraiki.

Hasierako informazio-eskari horren harira berretsi genuen elkarte-buruak eskubiderik ez baldin bazuen behar bezala arrazoitu beharko zutela, oinarri juridikoei jarraiki, txosten grafologikoa emateari uko egiteko arrazoia.





3. Azkenean, Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzordeak honakoa adierazita erantzun zion gure eskariari:

1. Dokumentazio guztia Datuak Babesteko Euskal Bulegora bidali zutela behar bezalako txostena presta zezaten eta hura ebatzitakoan guri igor ziezaguten.
2. 2013ko apirilaren 18an Datuak Babesteko Bulegoak "txostena" Arartekoari jakinaraziko ziotela adierazi zuela.
3. Txostena ez zutela bere osotasunean eman beharrezkoa ez zelakoan udalburu-errejidoreak berak hala erabaki zuelako, izan ere, ez zen (...) andrearen datu pertsonal eta pribaturik jakinarazi, salaketan bertan argudiatu zuen bezalaxe.
4. Oraindik ere informazioa eskatzen jarraitzen dutenez txosten grafologikoaren kopia bat eta txosten hori egiteko erabilitako akta zatien kopiak igortzen dizkigutela.
5. Txosten grafologiko hori (...) andreari ere ez emateko eskatzen du.

Aurrekariok kontuan hartuta, egoki deritzogu honako ebazpena ematea, honako gogoetei jarraiki:

Gogoetak

1. Oro har, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 37. artikulua xedatzen du herritarrek administrazioaren esku dauden agiriak eskuratzeko eskubidea dutela, beti ere artikulua horretan xedatutakoa betez. Gainera, kasu honetan interes berezia dago, Kontzejuko herritarra ez ezik elkarrekin kexagileko lehendakaria den pertsonaren inguruko txosten grafologikoa baita.

Zentzu horretan, aipatutako artikulua 2. atalak honakoa adierazten du:

"Pertsonen bizitza pribatuari buruzko datuak jasotzen dituzten agiritara pertsona horiek bakarrik izango dute irispidea..."

Txosten grafologiko hori zer-nolako baldintzetan eskatu zen eta bidezkoa ote zen alde batera utzita (geroago jorratuko dugu puntu hori), atal honetan interesatzen zaiguna agiri hori Administrazio Batzordeko artxiboetan dagoen jakitea da. Gauzak horrela, **honakoa adierazten da Kontzejuaren 2012ko urriaren 19ko aktan:** *"En referencia a la duda que por parte de la Junta suscitó, la veracidad o no, de la rúbrica de la Sra. (...) en el escrito de la Asociación (...), leído en el punto nº 5 y en el recurso de reposición del inventario de bienes realizado por esta asociación y tratado en el punto nº 2 del pasado Concejo, la Junta informa del estudio grafológico que el Sr. Presidente-Regidor ha realizado. En dicho estudio, costado íntegramente por el Sr. Presidente-Regidor,..."*





Horrenbestez, erakunde kexagileko lehendakariaren sinadurak Administrazio Batzordeari eragin zion zalantzaren aurrean udalburu-errejidoreak "egindako" txosten grafologikoa egon badago.

29 orriko txostenak berretsi egiten du idazkerari buruzko aditu-txostena Administrazio Batzordeko udalburu-errejidoreak eskatu zuela Kontzejuko administrazio-organoaren izenean. Halaber, adituari emandako agiriak jatorrizkoak izan dira, eta Administrazio Batzordeak bakarrik eskura ditzake dokumentuok (errejidore-udalburuak eta fede-emaileak, euren kargua dela medio, Kontzejuko jatorrizko espedienteak, dokumentuak eta akta-liburua eskura ditzakete).

Puntu horri dagokionean, interesdunak eskatutako agiria eskuratzeko eskubidea erabiltzeko orduan ez dauka inolako garrantzirik udalburu-errejidoreak azterlan osoa ordaindu zuela esateak.

Beraz, frogatuta geratu denez elkarrekin kexagilearen lehendakariari egotzitako sinadurak ikertzeko, aztertzeko eta egiaztatzeko xedea duen txosten hori toki-erakundearen artxiboetan dagoela, Administrazio Batzordeak agiri hori errejidore-udalburuaren bidez interesdunari helarazteko legezko betebeharra du.

2. Bestalde, erakunde honi igorritako erantzunean udalburu-errejidoreak adierazi zuenez, ez zion txosten osoa eman ez zuelako beharrezkotzat jo, izan ere, ez omen zen, kexagileak bere salaketan argudiatu zuen moduan, (...) andrearen datu pertsonal eta pribaturik zabaldu.

Interesdunak aipatutako agiria ikusteko daukan eskubidea alde batera utzita, aurreko atalean argudiatu dugun legez, badirudi datu pertsonal eta pribatuak zabaldu ez izana erabili nahi dela udalburu-errejidoreak hizpide dugun azterlana ez emateko hartu duen erabakia baliozkotzat emateko.

Elkarrekin zerikusirik ez duten kontuak dira, baina. Berari buruzko informazioa duenez interes berezia duelako elkarrekin kexagileko lehendakariak Administrazio Batzordearen esku dagoen agiri bat ikusteko duen eskubidea gauza bat da. Eta Administrazio Batzordeak Kontzejuko administrazio-organo gisa dituen datuak erabili edo/eta uzterakoan irregulartasunen bat egin izana, aldiz, bestelako kontua da.

Datu Pertsonalen Babesari buruzko abenduaren 15eko 15/1999 Lege Organikoaren (DBLO) 3. artikulua honako definizioa jasotzen du: *"Izaera pertsonaleko datuak: identifikatutako edo identifikatzeko moduko pertsona fisikoen gaineko edozein informazio"*. Hizpide dugun kasuan argi dago azterlan grafologikoa identifikatutako pertsona fisiko bati buruzkoa dela, beraz, azterlana egiteko erabilitako datuei zein agiriaren edukari berari dagokionean, izaera pertsonaleko datuak dira legez.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren 2012ko apirilaren 15eko R13-027 ebazpenaren arabera, Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzordeak urratu





egin du DBLOren 4. artikuluan xedatutakoa, eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 22.3.c) artikuluan arau-hauste larri gisa tipifikatutako hutsegitea egin du, hain zuzen. Arau-haustea honakoa da: *“Tratar los datos de carácter personal o usarlos posteriormente con conculcación de los principios y garantías legalmente establecidos o con incumplimiento de los preceptos de protección que impongan las disposiciones reglamentarias de desarrollo, cuando no constituya infracción muy grave.”*

Ondorioz, Bulegoak Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzordeari errekerimendua egitea ebatzi du etorkizunean DBLOaren 4. artikulua berriro urratzea saihesteko barne-neurriak ezarri eta manten ditzan.

Horren inguruan erakunde honek ez dio ezer gehitu nahi Datuak Babesteko Euskal Bulegoak ebatzitakoari.

3. Azkenik, uste dugu txosten grafologikoa zer-nolako egoeran eskatu zen eta bidezkoa ote zen baloratu behar dela.

Kontzejuaren 2012ko irailaren 14ko aktan jasotakoaren arabera, elkarte kexagileak berraztertzeke errekurtsua aurkeztu zuen Kontzejuko Ondasun eta Eskubideen Inbentarioaren behin betiko onarpenaren aurka, izan ere, formakontuak direla eta, errekurtsorako legitimazio aktiborik ez zegoela erabaki baitzen alde aurretik. Hona hemen legitimazio-ezaren zergatiak:

- 1.- Ezarritako berraztertzeke errekurtsuaren xede den egintzak ez die haren xedeei eragiten.
- 2.- Ez da ageri aurkeztutako errekurtsuaren idazkia sinatu duen pertsona nor den (irakurtezina den sinadura bat baino ez dago) ezta zein kargu duen ere (ez dakigu elkartean kargurik duen), beraz, ez da frogatuta gelditzen sinatzaileak elkarrearen izenean jarduteko eskumenik ote duen.
- 3.- Ez dago jasota errekurtsua jarri duen elkarteak helegiteak ezartzeko erabakia hartzeko eskudun organoak errekurritzeko erabakia hartzeko eskatzen dituen baldintzak bete dituenik.

Ondorioz, errekurtsua ezartzeko legitimazio aktiborik eza ikusita, azaldutako zuzenbide-oinarriei eta gainerako inguruabarrei jarraiki, auzotarren batzordeak berraztertzeke errekurtsua ez onartzea erabaki zuen.

Hartutako erabakiak elkarteak bere asmoak aurrera egin dezan daukan eskubideari edo interes legitimoari heltzen dio zuzenbide-oinarrietan, eta elkarteak ez duela errekurtsua ezartzeko zuzeneko edo zeharkako interesik ondorioztatzen du. Esan beharra dago hori gertatzea errekurtsua baztertzeke arrazoi nahikoa dela, kexagileak helegitea jartzeko legitimaziorik ez duela ulertzen baita. 2. eta 3. ataletan aipatutako gaiak ere errekurtsua baztertzeke arrazoi formalak izan daitezke, baina horiek ezin dira automatikoki balioztatu, balorazioa egin aurretik akatsak konpontzeko epe bat eman behar baitzaio interesdunari. Egia da kasu





honetan, helegitea jarri zuen elkarteak bidezko interesik ez zuela ondorioztatu zenez, bazegoela errekurtsua baztertzeko arrazoirik, baina hala ere interesdunari ez zitzaion zuzenketak egiteko aukerarik eman.

Halako kasuetarako honakoa xedatzen du Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 32.4 artikulua: *“Ordezkaritza egiaztatu ez edo behar bezala egiaztatu gabe izanda ere, egintza gauzatzat jo daiteke, baldin eta ezarritako epean ordezkari itzaz egiaztatu, edo akatsa zuzentzen bada. Epea eman beharra du administrazio organoak, eta hamar egunekoak izango da, edo luzeagoa, kasuaren gorabeherak hala eskatzen badute.”*

Gainera, hitzarmenak alegatzen dituen agirien sinadurari dagokion kasu konkretuan, Lege horren 70 1d) artikulua xedatzen duenaren arabera, dokumentuek eskatzailearen sinadura eduki behar dute, edo bestela, adierazitako borondatea benetakoa dela frogatu beharko dute edozein bide erabilita.

Aipatutako guztia kontuan hartuta, berraztertzeko errekurtsua ez onartzea erabaki zenez, ez zegoen agiri horretan ageri den sinadura elkarte-buruarena den edo ez ikertzeko inolako arrazoirik. Gainera, errekurtsua baztertzeko gainerako arrazoiak emango ez balira ere, sinadura benetakoa den egiaztatze bidezko lege-izapidea erabil zitekeen, izan ere, bilkuran interesdunak berak onartu zuen dokumentua berea zela. Hau da, argi utzi zuen hizpide dugun agiria berresten zuela. Laburbilduz, beraz, ez dugu hizpide dugun aditu-txostena eskatzea justifikatu dezakeen Administrazio Batzordeak bere egitekoak betetzean defendatu behar dituen interes publikoei eragin diezaikeen legezko arrazoirik aurkitu.

Horrenbestez, ondorioztatzen dugu kasu honetan hizpide dugun azterlan grafologikoa eskatzerakoan Administrazio Batzordeko udalburu-erregidoreak ez duela zuzenbideari jarraiki jokatu. Dena den, azterlana eginda dagoenez, hura interesdunari helarazteko betebeharra du aipatu ditugun arrazoiengatik, eta ez da bidezkoa udalburu-erregidorearen ustez horretarako beharrik ez dagoela argudiatzea, kargu publiko bat betetzen duen heinean Legeak xedatutakoari jarraiki jokatu behar baitu nahitaez.

Horrenbestez, erakunde hau sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11 b) artikuluan agindutakoari jarraiki, honako gomendioa egiten dugu:

GOMENDIOA

(...) Elkarteko lehendakariari al bait azkarren helaraz diezaiola Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzordeko buruak hala eskatuta bere sinaduraren inguruan 2012ko urriaren 4an egindako aditu-txosten kaligrafikoa.

